| | |
|---|---|
| **AGINDUA, 2019KO EKAINAREN 5EKOA, GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNUKO SAILBURUARENA, EAE-KO KASAZIO ZIBILAREN LEGE-PROIEKTUA EGITEKO PROZEDURA HASTEKOA** | **ORDEN DE 5 DE JUNIO DE 2019, DEL CONSEJERO DE GOBERNANZA PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO, DE INICIACIÓN DEL PROCEDIMIENTO DE ELABORACIÓN DEL PROYECTO DE LEY DE CASACIÓN CIVIL VASCA.** |
| **I. Proiektatutako erregulazioaren beharra eta horri buruz indarrean dagoen araudia** | **I. Necesidad de la regulación proyectada y normativa vigente al respecto.** |
| Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legearen 2.3 artikuluak Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Arlo Zibileko Salari ematen dio doktrina bateratzeko mandatua, hain zuzen ere jurisdikzioa Euskal Autonomia Erkidegoan duten epaileek eta auzitegiek prozesu-legeriak une oro ezartzen duen errekurtsoen bidetik emandako ebazpen arrazoituetatik eratorritako doktrina. | El artículo 2.3 de la Ley 5/2015, de 25 de junio, de Derecho Civil Vasco encomienda a la Sala de lo Civil del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco la tarea de unificar la doctrina que, a través de los recursos pertinentes que en cada momento establezca la legislación procesal, emane de las resoluciones motivadas de los jueces y tribunales con jurisdicción en el País Vasco. |
| Gaur egun, EAEko zuzenbide zibilaren, foralaren edo bereziaren arauak hausteagatik jarritako kasazio-errekurtsoari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Arlo Zibileko eta Zigor Arloko Salaren eskumena berariaz dago aurreikusita, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren 14.1.a) artikuluan ez ezik, Prozedura Zibilaren Legearen 478.1 eta 489. artikuluetan ere (eskumen horrek Konstituzioaren 152. artikuluan eta Botere Judizialaren Lege Organikoaren 7. artikuluan du oinarria). | En la actualidad la competencia de la Sala de lo Civil y de lo Penal del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en relación con el recurso de casación por infracción de las normas del Derecho civil, foral o especial propio del País Vasco, derivada de los artículos 152 de la Constitución, 73 de la Ley Orgánica del Poder Judicial, está expresamente prevista, además de en el artículo 14.1.a) del Estatuto de Autonomía para el País Vasco, en los artículos 478.1 y 489 de la Ley de Enjuiciamiento Civil. |
| Halere, lege-aurreikuspen horiek ez dute orain arte nahi bezalako emaitzarik izan, eta EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak emandako ebazpenen kopurua urria baita EAEko zuzenbide zibila behar beste epaiz hornitzeko, Auzitegi horrek eskatzen zaion funtzio bateratzailea bete ahal izan dezan. | Sin embargo, estas previsiones legales no están dando hasta ahora los frutos que sería deseable, de cara a dotar al Derecho civil vasco de un acervo suficiente de pronunciamientos judiciales a nivel del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, que permitan realizar plenamente la función unificadora de la doctrina que a dicho Tribunal se le encomienda. |
| Eta hori gertatzen da ebazten diren auziak, hainbat arrazoirengatik, gutxi direlako, eta denboran zehar kopurua gutxitzen joan delako. Arrazoi horien artean nabarmendu behar da Prozedura Zibilaren Legearen IV. tituluko V. kapituluan jasotako araudia ez zaiela egokitzen euskal zuzenbide zibilak dituen benetako premiei. Hain zuzen ere, EAEko kasazio zibila kasazio orokorraren eskakizun zorrotzen | Y ello porque, debido a una multitud de causas, son claramente escasos los asuntos que se resuelven, y su número ha ido decreciendo con el paso del tiempo. Entre dichas causas destaca la falta de adecuación de la normativa contenida en el Capítulo V del Título IV de la Ley de Enjuiciamiento Civil a las reales necesidades del Derecho civil vasco. Singularmente, la sujeción de la casación |

Nahi izanez gero, J0D0Z-T1N7F-V4SY bilagailua erabilita, dokumentu hau egiazkoa den ala ez jakin liteke egoitza elektroniko honetan: http://euskadi.eus/lokalizatzailea

La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador J0D0Z-T1N7F-V4SY en la sede electronica http://euskadi.eus/localizador

| | |
|---|---|
| mende egoteak kasazio-prozedurari hainbat xedapen, materia eta foru-instituzio kentzen dizkio, balorazio ekonomiko prozesal mugatua eduki arren oso errotuta daudenak eta gatazka sozial handiak eragiten dituztenak, bakoitzak bere eremuan. | civil vasca a las rigurosas exigencias de la general ha venido sustrayendo al enjuiciamiento casacional disposiciones, materias e instituciones forales que, pese a su limitada valoración económica procesal, son de gran arraigo y conflictividad social en sus respectivos ámbitos. |
| Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Arlo Zibileko Salan dagoen lan-karga txikia eta epai-kopuru mugatua ikusita, eta aintzat hartuta epai horiek osatzen dutela euskal zuzenbide zibilaren jurisprudentzia-corpusa, Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordeak, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legearen lehenengo xedapen gehigarriaren arabera sortutakoa bera, lehentasunezko zeregintzat hartu du EAEko Kasazio Zibilaren Lege-proiektu bat egitea. | La escasa carga de trabajo de la Sala de lo Civil del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en materia civil y el limitado rango de sentencias que, consecuentemente, conforman el corpus jurisprudencial del Derecho civil vasco, han motivado que la Comisión de Derecho civil vasco, creada por disposición adicional primera de la Ley 5/2015, de 25 de junio, de Derecho Civil Vasco, haya abordado como una de sus tareas prioritarias la elaboración de un proyecto de Ley de casación civil vasca. |
| Horrela, Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordearen 2018. urterako jarduera-planean, Batzordeak, zeinaren helburua baita indarrean dauden xedapenak finkatzea, harmonizatzea eta sinplifikatzea, eta euskal legeria unean uneko errealitate sozialera egokitzea, aipatutako testu artikulatua egiteko lanak hastea erabaki zuen, gerora lege-aurreproiektu gisa izapidetzeko. Honela deskribatzen zuen lege-aurreproiektua: | Así, ya en su plan de actuación y actividades anuales de la comisión de derecho civil vasco para el año 2018, la Comisión de Derecho civil vasco, cuya misión es la de consolidar, armonizar y simplificar disposiciones en vigor y adecuar la legislación vasca a la realidad social de cada momento, se planteó iniciar los trabajos para la elaboración de dicho texto articulado que pudiera ser luego tramitado como anteproyecto de Ley, describiéndolo de la siguiente manera: |
| *"Euskal zuzenbide zibilaren arloko kasazio-errekurtsoaren legearen aurreproiektua. Horren helburu nagusia izango da errekurtso horretara zenbateko bidez sartzeko ataria nabarmen murriztea, eta eskubide horren beraren ondoriozko beste kasu batzuk ezartzea, berriz orekatu dadin Euskal Autonomia Erkidegoko Justiziako Auzitegi Goreneko Arlo Zibileko Salak gai zibiletan duen lan-karga eskasa, eta, hala, euskal zuzenbide zibileko jurisprudentzia-corpusa osatzen duten epaien maila handitu dadin, indarreko xedapenak finkatu eta harmonizatzeko mekanismo nagusi gisa".* | *"Anteproyecto de ley del recurso de casación en materia de derecho civil vasco, cuyo objetivo principal será el de reducir el umbral de acceso por cuantía a dicho recurso por un importe significativamente menor, junto con el establecimiento de otros supuestos propios derivados de su propio Derecho, a fin de reequilibrar la escasa carga de trabajo de la Sala de lo Civil del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en materia civil y ampliar, de esa manera, el rango de sentencias que conforman el corpus jurisprudencial del Derecho civil vasco, como mecanismo primordial de consolidación y armonización de las disposiciones en vigor".* |
| Aurrekoari jarraituz, Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordearen urteko osoko bilkuran, 2018ko abenduaren 12an, arauaren zirriborroa aurkeztu zen, eta honako hau ere erabaki zen (eta jasota dago Euskal | Conforme a ello, en la sesión anual del Pleno de la Comisión de Derecho civil vasco, celebrada el 12 de diciembre de 2018 se presentó al mismo el borrador de norma, acordándose así mismo (lo cual queda recogido |

| | |
|---|---|
| Zuzenbide Zibilaren Batzordearen 2019. urterako jarduera-planean): | en el plan de actuación y actividades anuales de la comisión de derecho civil vasco para el año 2019) que: |
| *Osoko bilkuran aurkeztu ondoren, 2 hilabeteko epea zabalduko da ekarpenak edo zuzenketak egiteko, eta 2019. urtean zehar aurreproiektua landu egin beharko da lehendakariari aurkezteko, hark zuzentzen duen Sailak aurreproiektua izapidetu dezan, xedapen orokorrak egiteko prozedurari jarraituz.*<br><br>*Ildo horretatik, Batzordeak aukera izango du, 2019an, aurreproiektua izapidetu bitartean izandako eztabaidak ezagutzeko, eta gainera kide askok ordurako parte hartuko zuten eztabaida horietan, ordezten duten erakundeen ordezkari gisa parte hartuko zutelako etorkizuneko lege-proiektuak egiteko eta izapidetzeko lanetan.* | *Una vez presentado al Pleno, se abrirá un periodo de 2 meses para la presentación de aportaciones o enmiendas, y durante 2019 la tarea a llevar a cabo se concretaría en su preparación para elevarlo a la Presidencia, al objeto de que en el seno del Departamento que dirige se dé curso a la tramitación del mismo, de conformidad con el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general.*<br><br>*En tal sentido, la Comisión tendrá ocasión en 2019 de conocer de los debates que se hayan abierto en el curso de la tramitación, sin perjuicio de que muchos de sus miembros habrán participado en dichos debates a través de su participación, desde las instituciones a las que representan, en el procedimiento de elaboración y en la tramitación de los futuros proyectos de ley.* |
| Horrela, bada, epe hori amaitu eta dagozkion zuzenketak jaso ondoren, eta Batzorde Teknikoak dagokion arau-proposamena Batzordearen lehendakariari aurkeztu dionez, eta kargu hori neronek betetzen dudanez Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua naizen aldetik, egoki deritzot dagokion prozedurari hasiera ematea agindu honen bidez. | Así pues, vencido dicho plazo y recibidas las enmiendas pertinentes, y habiendo sido elevada por el Comité Técnico la correspondiente propuesta de norma a la Presidencia de la Comisión, cargo que ostento en mi condición de Consejero de Gobernanza Pública y Autogobierno, es por ello que encuentro procedente iniciar el correspondiente procedimiento por medio de la presente orden. |
| **II. Aplikazio-eremua.** | **II. Ámbito de aplicación.** |
| Kasazioan errekurritu ahalko dira Probintzia Auzitegiek, auzitegi kolegiatu moduan jardunez, apelazioan emandako behin betiko epaiak eta autoak, baldin eta kasazio-interesik badute eta errekurtsoaren oinarria prozesuak xede dituen auziak ebazteko aplikatu beharreko arauen urraketa baldin bada, betiere EAEko zuzenbide zibilaren, foralaren edo bereziaren arauak urratzeari egiten bazaio erreferentzia. Kanpoan utziko dira, oro har, prozesua amaitzen ez duten ebazpenak, ebazpen intzidentalak edo kautelazkoak eta xede berari buruzko beste prozedura bat hastea eragozten ez dutenak. | Se plantea que serán recurribles en casación las sentencias y autos definitivos dictados en apelación por las Audiencias Provinciales cuando actúen como tribunal colegiado que presenten interés casacional y el recurso se fundamente en la infracción de normas aplicables para resolver las cuestiones objeto del proceso, siempre que haga referencia a la infracción de normas del Derecho civil, foral o especial propio del País Vasco. Se excluyen, con carácter general, las resoluciones que no pongan fin al proceso, las que tengan carácter incidental o cautelar y las que no impidan |

**III. Kontuan hartzekoak izan daitezkeen beste araudi batzuk**

Bi aukera dauzkagu euskal zuzenbide zibilak dituen premia bereziei erantzuteko behar den berariazko kasazio-errekurtsorik gure autonomia-erkidegoan ez egoteak dakartzan ondorioak aztertzeko:

a) «Ezer ez egitea» aukeratuz gero, Prozedura Zibilaren Legean jasotako egungo araudia aplikatu beharko genuke.

b) Lege berri bat egiteko aukera daukagu, euskal zuzenbide zibilak dituen berezitasunek eragiten dituzten premia bereziei erantzuteko.

Guztiz baztertzen da «Ezer ez egitea» aukera (a), ondorioa egungo egoera luzatzea izango litzatekeelako, eta egoera horretan, Prozedura Zibilaren Legean kasazio-errekurtsorako ezarritako arau orokorrak ñabardurarik gabe aplikatuta, euskal zuzenbide zibila osatzen duten arauak irismen orokorreko jurisprudentzia nahikorik gabe gelditzen direlako. Eta horrek, zeharka, zaildu egiten du Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Arlo Zibileko Salak doktrina bateratzeko legez esleitutako daukan betekizunari heldu ahal izatea eta, ondorioz, zuzenbide hori aplikatzeko segurtasun juridikoa txikiagoa da.

Erabaki da, beraz, (b) aukerari erantzungo dion aurreproiektu bat izapidetzen hastea, Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordeak emandako gomendioei jarraituz.

Adierazitakoaren ildotik, eta aintzat hartuta Gobernuari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26.8 artikuluak eta Xedapen orokorrak egiteko prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 4. eta 5. artikuluek diotena,

**XEDATZEN DUT**

**Lehenengoa.-**

EAEko Kasazio Zibilaren Lege-aurreproiektua

un procedimiento posterior con el mismo objeto.

**III. Alternativas regulatorias que pueden tomarse en consideración.**

Existen dos alternativas posibles para abordar las consecuencias que en nuestra Comunidad Autónoma tiene la ausencia de un recurso de casación específico que atienda a las peculiares necesidades del Derecho civil vasco:

a) Incluyendo la opción de "no acción", nos encontraríamos con la alternativa de aplicar la regulación actual contenida en la LEC.

b) En segundo lugar, tenemos la opción de aprobar una Ley de nuevo cuño que atienda a las especiales necesidades que en este orden se derivan de las particularidades del Derecho civil vasco.

Se descarta por completo la opción de "no acción" (a), pues su consecuencia sería prorrogar la actual situación en la que, por la aplicación sin matizaciones de las normas establecidas con carácter general para para el recurso de casación en la Ley de Enjuiciamiento Civil, se priva a las normas que integran el Derecho civil vasco de una suficiente jurisprudencia de alcance general. Lo que, indirectamente, dificulta que la Sala de lo Civil del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco pueda abordar la tarea de unificar la doctrina que tiene legalmente atribuida y redunda en una menor seguridad jurídica en la aplicación de este Derecho.

Se opta así por iniciar la tramitación de un anteproyecto que responda a la segunda de dichas alternativas (b), de conformidad con las recomendaciones de la Comisión de Derecho civil vasco.

De acuerdo con lo anteriormente expuesto y en virtud de lo establecido en los artículos 26.8 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, "de Gobierno", y 4 y 5 de la Ley 8/2003, de 22 de diciembre, "del Procedimiento de Elaboración de Disposiciones de Carácter General",

**DISPONGO**

**Primero.-**

Ordenar el inicio del procedimiento para la

| | |
|---|---|
| egiteko prozedura has dadin agintzea, agindu honetan finkatutako helburuak eta irizpideak betez. Hauexek hain zuzen ere: | elaboración del Anteproyecto de Ley de casación civil vasca, atendiendo a los objetivos y criterios establecidos en la presente Orden y, en concreto, los siguientes: |
| ***Xedea eta helburua*** | ***Objeto y finalidad*** |
| Lege-proiektu honen xedea eta helburua da muntaren betekizuna kentzea eta, kasazio-interesik badute, kasazio-errekurtsoak aurkeztu ahal izatea onartzea, eta, oro har, kasazio-interesa sinplifikatzea, eta, hartara, jurisprudentziarik ez badago, edo Probintzia Auzitegiek ebazpen kontrajarriak eman badituzte, Justizia Auzitegi Nagusira jo ahal izatea.<br><br>Helburua da muntaren betekizunak ez dezala eragotzi gai batzuk kasaziora iristea, zeren eta batzuetan, garrantzi handikoak izan arren edo euskal zuzenbide zibila interpretatzeari begira kasazio-interes handikoak izan arren, ekonomikoki balio txikikoak edo kuantifikaezinak izaten baitira, familia-zuzenbidearen arloan askotan gertatzen den bezala. | El objeto y finalidad de este proyecto de ley es suprimir el requisito de la cuantía, admitiendo la presentación de los recursos de casación siempre que los mismos presenten interés casacional y, en general, simplificar el interés casacional, de forma que siempre que no exista jurisprudencia sobre la cuestión, o las Audiencias Provinciales tengan resoluciones contrapuestas, se pueda acudir al Tribunal Superior de Justicia.<br><br>Se busca así que el requisito de la cuantía no impida el acceso a la casación de aquellas cuestiones que, no obstante su extraordinaria importancia o el interés casacional que presentan de cara a la interpretación del Derecho civil vasco, pueden ser de escasa o imposible cuantificación económica, como a menudo sucede en materia de derecho de familia. |
| ***Proposatutako arauketaren edukia.*** | ***Contenido de la regulación propuesta*** |
| Arautu beharreko eremua (proposatutako araudiaren edukia, alegia) euskal zuzenbide zibila urratzeagatiko kasazio-errekurtsoaren berezitasunetara mugatu behar da eta, modu horretan, arautzen ez den gainerako guztian aplikatu beharreko araua, prozesu-arau orokor gisa, Prozedura Zibilaren Legean kasazio-errekurtsorako ezarritakoa izango da. | El ámbito a regular, que será el contenido de la normativa propuesta, se ha de ceñir a las peculiaridades del recurso de casación por infracción del Derecho civil vasco, de forma que en todo lo no regulado siga siendo de aplicación como norma procesal general lo establecido para el recurso de casación en la Ley de Enjuiciamiento Civil. |
| ***Bideragarritasun juridikoaren estimazioa*** | ***Estimación de viabilidad jurídica*** |
| Arazo hori konpontzeko, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren 10.5 eta 14.1.a) artikuluetan xedatutakoaren arabera, eta Konstituzio Auzitegiak Konstituzioaren 149.1.6 artikuluari buruz egindako interpretazioaren babesean (Konstituzio Auzitegiaren martxoaren 25eko 47/2004 Epaia), Eusko Legebiltzarrak Euskal zuzenbide zibilaren arloko kasazio-errekurtsoa arautzeko lege bat egin ahalko du, euskal zuzenbide zibilak dituen berezitasunek eragiten dituzten premia bereziei erantzuteko, zuzenbide zibil, foral eta berezi propioa duten beste autonomia-erkidego batzuek egin duten bezala. | Para solucionar este problema, de conformidad con lo previsto en los artículos 10.5 y 14.1.a) del Estatuto de Autonomía para el País Vasco y al amparo de la interpretación del artículo 149.1.6º de la Constitución realizada por el Tribunal Constitucional (Sentencia del Tribunal Constitucional de 47/2004, de 25 de marzo), el Parlamento Vasco puede elaborar una Ley que regule el recurso de casación en materia de Derecho civil vasco, en atención a las necesarias especialidades que en este orden se derivan de las particularidades del Derecho civil vasco, como ya han hecho otras Comunidades Autónomas con derecho civil, foral o especial propio. |

| | |
|---|---|
| ***Bideragarritasun materialaren estimazioa***<br><br>Lege berria alderdi materialean ere bideragarria izango da, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Arlo Zibileko eta Zigor Arloko Salak, prozesu-arau orokorra aplikatuta, jadanik ebazten dituen prozedura judizialei dagokielako.<br><br>Gainerakoari dagokionez, egingo den arau berria aplikatzearen ondorioz instantzia horretara iritsi daitezkeen auzien bolumena bere gain hartzeko modukoa izango dela aurreikusten da, Probintzia Auzitegietan gaur egun izapidetzen ari diren auzien kopurua eta proiektuan errekurtsoak ez onartzeko jasoko de araubide zabala ikusita. | ***Estimación de viabilidad material***<br><br>La nueva ley también será viable materialmente, porque su aplicación se refiere a procedimientos judiciales que en la actualidad ya resuelve, por aplicación de la norma procesal general, la Sala de lo Civil y de lo Penal del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.<br><br>Por lo demás, el volumen de asuntos que, por aplicación de la nueva normativa que se proyecta, pueden llegar a esa instancia, se estima como perfectamente asumible por la misma, a la vista del número de asuntos actualmente tramitados sobre estos asuntos en las Audiencias Provinciales y las posibilidades que habrá de permitir el generoso régimen de inadmisión proyectado. |
| ***Ordenamendu juridikoan izango dituen ondorioak***<br><br>Lege berriak ez die zuzenean eragiten gaur egun indarrean dauden legeei, baina Prozedura Zibilaren Legean, prozesu-arau orokor gisa, kasazio-errekurtsorako ezarrita dauden arau batzuk ordeztea dakar, lege berezia den aldetik. | ***Repercusiones en el ordenamiento jurídico***<br><br>La nueva Ley no afecta directamente a ninguna de las leyes actualmente vigentes, aunque implica la sustitución, en tanto que ley especial, de algunas normas establecidas actualmente para el recurso de casación en la Ley de Enjuiciamiento Civil como norma procesal general. |
| ***Zer ondorio izango duen eragindako administrazioaren aurrekontuetan, dagokion gaian eta, halakorik badago, dagokion jardueraren sektorean***<br><br>Lege berria aplikatzeak gastua zertxobait igotzea ekar dezake, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Arlo Zibileko eta Zigor Arloko Salak gaur egun daukan eta handiagoa izatea nahi genukeen lan-karga handitu egin daitekeelako. Halere, igoera txikia izango da eta, edonola ere, Auzitegiak bere gain hartzeko modukoa, zeren eta haren edukietatik eratorritako funtzioak eta jadanik egiten ari direnak berdinak edo homologagarriak izango baitira. Eta, edozein modutan ere, materiaren berezitasuna kontuan hartuta, auzien igoera ez da seguru asko handiegia izango. | ***Incidencia en los presupuestos de la Administración afectada, en la materia concernida y, en su caso, en el sector de actividad de que se trata***<br><br>La aplicación de la nueva Ley puede conllevar un cierto incremento del gasto, en tanto de la misma se pueda derivar un deseable incremento de la carga de trabajo a la que actualmente hace frente la Sala de lo Civil y de lo Penal del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco. Sin embargo, este será menor y, en todo caso, perfectamente asumible, ya que las funciones que de sus contenidos se deriven serán iguales o al menos homologables con las que ya se vienen ejerciendo. Y, en todo caso, dado lo específico de la materia, el aumento de asuntos no será previsiblemente demasiado elevado. |
| ***Egin beharreko tramiteak eta txostenak***<br><br>Lege berria onartu ahal izateko, proiektuaren administrazio-izapideari jarraitu behar zaio; hots, abenduaren 22ko 8/2003 Legean, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurarenean, ezarritako prozedurari. | ***Trámites e informes procedentes por razón de la materia***<br><br>Para aprobar la nueva ley será necesario seguir la tramitación administrativa pertinente del proyecto, conforme al itinerario que fija nuestra ley 8/2003, de 22 de diciembre, “del Procedimiento de Elaboración |

| | |
|---|---|
| | de las Disposiciones de Carácter General". |
| Legearen edo erregelamenduaren proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da, hasteko agindu hau administrazio eskudunaren webgunean argitaratuz, eta agindu horretan jasoko da zer iritzi duten etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuek eta antolakunderik ordezkagarrienek puntu hauei buruz: | Con carácter previo a la elaboración del proyecto o anteproyecto de ley o de reglamento, se sustanciará una consulta pública, mediante la publicación de la presente Orden de iniciación a través del portal web de la Administración competente en la que se recabará la opinión de los sujetos y de las organizaciones más representativas potencialmente afectados por la futura norma acerca de: |
| a) Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak. | a) Los problemas que se pretenden solucionar con la iniciativa. |
| b) Hura onartzearen beharra eta egokitasuna. | b) La necesidad y oportunidad de su aprobación. |
| c) Arauaren helburuak. | c) Los objetivos de la norma. |
| d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak. | d) Las posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias. |
| Lege-aurreproiektuaren lehenengo testu bat idatzi ahal izateko behar diren ekintzen ondoren, testu hori bi hizkuntzetan idatziko da, Jaurlaritzaren Kontseiluak horri buruz hartutako Akordioaren aurreikuspenen arabera. Onetsitako testu elebiduna atxikita daukan aurreko onarpenaren agindua eman ondoren, horrela egindako araudi-aurreproiektuak nahitaezkoak diren txostenak edo beste tramite batzuk jasan beharko ditu, arauzko xedapenak egiteko indarrezko prozeduraren arabera. | Tras las actuaciones que se requieran para que pueda darse abordarse la redacción de un primer texto del anteproyecto de ley, éste se redactará ya de un modo bilingüe siguiendo las previsiones del Acuerdo de Consejo de Gobierno al respecto. El anteproyecto normativo así elaborado, una vez sea objeto de la Orden de aprobación previa a la que se adjuntará el texto bilingüe aprobado, deberá someterse a los informes u otros trámites que resulten preceptivos con arreglo al vigente procedimiento de elaboración de disposiciones normativas. |
| Beherago zehaztuko diren entzunaldi tramiteez gain, bidezkotzat jotzen da jendaurrean jartzeko tramitea, 8/2003 Legearen 8. artikuluan xedatuta dagoenaren arabera, bai arautu beharreko gaiaren zeharkakotasunarengatik, bai herritarren eskubideei eragin diezaiekeelako, oro har. | Además de los trámites de audiencia que más abajo se detallan, se considera procedente el trámite de información pública, conforme a lo dispuesto en el artículo 8 de la ley 8/2003, por el carácter transversal de la materia objeto de regulación, y la potencial afectación a los derechos de los ciudadanos en general. |
| Tramitatzen hasteko aurretiaz onesten den testuan azkenik jasotzen diren edukien arabera, autoebaluazioa egingo da, araudiak genero-berdintasunaren arloan duen eragina haztatzeko eta, izaeraz antolamenduzkoa denez erregulazioa, eta hori txostenetik salbuesteko kasuetako bat denez, genero eragina ebaluatzeko tramitea bidezkoa den ala ez erabakitzeko. | En función de los contenidos que finalmente se recojan en el texto que sea objeto de aprobación previa para su tramitación, se realizará una autoevaluación al objeto de ponderar la incidencia de la normativa en materia de igualdad de género y la pertinencia o no, en virtud del carácter esencialmente organizativo de la regulación, que configura un supuesto de la exclusión del informe, del trámite de evaluación del impacto de género. |
| Hasiera batean ez dira beharrezkoak Euskadiko Kontsumoko Kontsulta Batzordearen eta Datuak | No se entienden procedentes en principio los informes de la Comisión Consultiva de Consumo de |

| | |
|---|---|
| Babesteko Euskal Bulegoaren eta Ekonomia eta Gizarte Batzordearen txostenak; dena dela, hori geroago berrikusi ahalko da, aurreko onarpen tramitea egin ondoren. | Euskadi, así como del Consejo Económico y Social y de la Agencia Vasca de Protección de Datos, sin perjuicio de que esta estimación previa pueda ser objeto de revisión con posterioridad al trámite de aprobación previa. |
| Aipatutako arrazoien babespean, egin behar diren tramiteak hauek izango dira: | Al amparo de las razones aludidas, los trámites a desplegar serán los siguientes: |
| -Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren zerbitzu juridikoen nahitaezko txostena, bai eta Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzaren eta Hizkuntza Politikako Zuzendaritzaren aurretiko txostenak ere. | -El informe preceptivo de los servicios jurídicos del departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno, así como los informes previos de la propia Dirección de Atención a la Ciudadanía e Innovación y Mejora de la Administración, y de Política Lingüística. |
| -Entzunaldia emango zaie EAEko erakunde-multzoari ere, EUDELen eta hiru foru aldundien iritzien eskaeraren bidez. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorraren sail guztietara bidaliko da, izan litezkeen alegazioetarako. Horrez gain Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari ere eskatuko zaio bere iritzia. | -Se dará trámite de audiencia al conjunto institucional de la CAE a través de la solicitud de parecer a EUDEL y a las 3 Diputaciones Forales. Igualmente se procederá a la remisión a todos los departamentos de la Administración general de la Comunidad Autónoma de Euskadi, a efectos de posibles alegaciones. Además de lo anterior también se solicitará la opinión del Consejo General del Poder Judicial. |
| -Entzunaldia emango zaie, halaber, Lurralde Historiko ezberdinetako Abokatu eta Prokuradoreen elkargo edo bazkunei, Euskadiko Erregistratzaileen Elkargoari; Euskadiko Notarioen Elkargoari; Euskal Herriko Unibertsitateari, Deustoko Unibertsitateari eta Mondragoi Unibertsitaterari, hala nola Zuzenbidearen Euskal Akademiari. | -Se dará trámite de audiencia a los Colegios de Abogados y Procuradores de los diferentes Territorios Históricos, al Colegio de Registradores del País Vasco y al Colegio Notarial del País Vasco, a la Universidad del País Vasco, la Universidad de Deusto y la Universidad de Mondragón, así como a la Academia Vasca del Derecho. |
| -Memoria ekonomikoa egin aurretik, zeinak inplementatuko diren karga administratiboen eta herritarrentzat izango dituzten kostuen azterketa jasoko duen, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren nahitaezko txostena eskuratuko da. | -Previa elaboración de la pertinente memoria económica, que contendrá un análisis de las cargas administrativas que en su caso se implementen y de sus costes para el conjunto de la ciudadanía, se recabará el informe preceptivo de la Oficina de Control Económico. |
| -Halaber, espedienteari prozedura osoaren memoria laburra erantsiko zaio, adierazitako 8/2003 Legeak adierazitako moduan. | -Se acompañará así mismo al expediente, memoria sucinta de todo el procedimiento, en los términos indicados por la citada Ley 8/2003. |
| -Azkenik, Jaurlaritzaren Kontseilura bidali aurretik, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena jasoko da, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren azaroaren 24ko 9/2004 Legean xedatutakoaren arabera. | -Finalmente, con carácter previo a su sometimiento a Consejo de Gobierno, se recabará el dictamen de la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, de acuerdo con lo dispuesto en la Ley 9/2004, de 24 de noviembre, de la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi. |

| | |
|---|---|
| ***Europar Batasunaren aurrean egin beharreko tramiteak*** | ***Trámites ante la Unión Europea*** |
| Lege-proiektu honi dagokionez, ez da tramiterik egin beharko Europar Batasunaren aurrean, kontuan hartuta arauaren aplikazio-eremua eta helburua eta xedea. | No será necesario seguir ningún trámite ante la Unión Europea respecto a este proyecto de ley, teniendo en cuenta el ámbito de aplicación y el objeto y finalidad de la norma. |
| ***Idazketa elebidunerako metodoa.*** | ***Método para la redacción bilingüe*** |
| Euskararen 10/1982 Legearen 8.1 artikulua betetze aldera, HAEEko Itzultzaileen Zerbitzu Ofizialak itzuliko du erregelamenduzko araudiaren testuaren gaztelaniazko/euskarazko bertsioa, lege-proiektu baten testua baita. | El sistema que se utilizará para el cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 8.1 de la Ley 10/1982 del Euskera será la traducción por el Servicio Oficial de Traductores del IVAP de la versión castellana/euskera del texto normativo, al tratarse del texto de un proyecto de ley. |
| Era berean, adierazitako moduan, Gobernu Kontseiluaren 2013ko maiatzaren 14ko Akordioari jarraituko zaio," zeinak onartzen baititu lege, legegintza-dekretu, dekretu edo aginduaren forma hartzen duten xedapen orokorrak bi hizkuntzatan idazteko neurriak"; horrela, dagozkien negoziazio-, entzunaldi- eta kontsulta-izapideak testu elebidun osoarekin jarraituko dira. Halaber, testu elebidun osoa bidaliko da, instrukzioaren hurrengo faseetan halabeharrezko txostenak eta irizpenak eskatzerakoan. | Así mismo, como ya se ha indicado, en este aspecto se seguirá el acuerdo de Consejo de Gobierno de 14 de mayo de 2013 "por el que se aprueban las medidas para la elaboración bilingüe de las disposiciones de carácter general que adopten la forma de ley, decreto legislativo, decreto u orden", de forma que los trámites de negociación, audiencia y consulta que procedan, se seguirán con el texto completo bilingüe y también será texto completo bilingüe el que se remitirá a los efectos de la solicitud de informes y dictámenes preceptivos en las siguientes fases de instrucción. |
| **Bigarrena.-** | **Segundo.-** |
| Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritza izendatzea legegintza-prozedura hau tramitatu behar duen organo gisa, zuzendaritza horri "Euskal zuzenbide zibila zaindu, aldatu edo garatzera bideratutako jarduerak landu eta garatzeko" esleitzen zaion eskumenaren arabera (Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko apirilaren 11ko 71/2017 Dekretuaren 14. artikulua, 1. paragrafoaren f) letra), eta Sailaren egitekoekin eta jardun-arloekin (Lehendakariaren azaroaren 26ko 24/2016 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituena eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituena, 6. artikulua, j) letra)". | Designar a la Dirección de Desarrollo Legislativo y Control Normativo, como órgano encargado de la tramitación de este procedimiento legislativo, de acuerdo con la competencia atribuida a la misma para *"elaborar y proponer actuaciones encaminadas a conservar, modificar y desarrollar el Derecho civil vasco"*, en el epígrafe f) del apartado 1 del artículo 14 del Decreto 71/2017, de 11 de abril, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno", y con las funciones y áreas de actuación del Departamento en la letra j) del artículo 6 del Decreto 24/2016, de 26 de noviembre, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos". |
| **Hirugarrena.-** | **Tercero.-** |
| Legesarea izeneko lankidetza-gunean Agindu honen berri emango da, xedapen orokorrak tramitatzeko jarraibideak onartu zituen | Dar a conocer en el espacio colaborativo Legesarea la presente Orden, de conformidad con |

| | |
|---|---|
| Jaurlaritzaren Kontseiluaren Akordioan xedatutakoa betez. | lo dispuesto en el Acuerdo de Consejo de Gobierno de 28 de diciembre de 2010, por el que se aprueban las instrucciones de tramitación de disposiciones de carácter general. |